

Sustatzailea

- Gaindegia

Lanaren egileak

- Jon Larrañaga (UPV-EHUko irakaslea)
- Enekoitz Etxezarreta (UPV-EHUko irakaslea)

Jarraipen batzordea

- Yolanda Jubeto
- Antón Borja
- Mikel Zurbano

Finantziak

- Eusko Jaurlaritza, Ogasun saila

Aurkibidea

Sar hitza.....	7
Aurkezpena	9
Lan taldea	11
Informazio iturriak	13
Adierazle zerrenda	15
Adierazle bakoitzaren definizioak	29
Bibliografia atal tematiko bakoitzerako	35

Euskal Herriko adierazle ekonomiko eta sozial nagusiak neurtzen

2008ko maiatza

Sar hitza

Gaur egun erabat ezezagunak zaizkigu Euskal Herriari dagozkion adierazle ekonomiko eta sozialen indizeak. Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, GAINDEGIAK Euskal Herriko errealitate ekonomiko eta soziala ezagutzea du helburu. Horregatik, eta gure elkartearen eztabaida eta gogoetari oinarri sendo bat eman nahian, lan honi ekin dio.

Ez da lan erraza, izan ere, informazio estatistikoari dagokionez asimetriak handiak dira eremu administratibo batetik bestera. Azpimarratzekoa da, batez ere, Iparraldean dugun informazio falta.

Honakoak, Euskal Herriko adierazle ekonomiko eta sozialak kalkulatzekoan lan esperimentalak izan nahi du. Denboraren poderioz eta jardun zientifikoaren laguntzaz zabaldu eta sendotuko dena. Oraingo 22 adierazleren indizeak kalkulatzeko metodologia eraiki dugu, baina etorkizunean gehiago izatea nahi genuke.

Dena dela, hautatu ditugun adierazleak ez ditugu edonola hautatu. Batetik, EUROSTAT estatistika erakundeak EGITURAKO ADIERAZLETZAT izendatu dituen horiek hautatu ditugu oinarri metodologiko sendoa izateaz gain esanguratsuak direlako. Bestetik, herrialde mailan neurtu ahal izateko informazio bateragarria eskaintzen zuten adierazleak hautatu ditugu.

Bateragarritasuna helburu, hainbat adierazle baztertu behar izan dugu, eta Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherearen kasuan "Iparraldea" izeneko epigrafearekin soilik eskaini ahal izan ditugu. Lortutakoa, beraz, egin beharreko lan handi baterako hurbilpena besterik ez da. Gure nahia etorkizunean adierazle zerrenda hau zabaldu eta sendotzea da. Horretarako nahi-koa indar eta aditu biltzen saiatuko gara.

Ez nuke hitzurre hau amaitu nahi proiektu honetan parte hartu duten ikerlariak zoriondu gabe eta Eusko Legebiltzarrari nire esker ona adierazi gabe emandako laguntza ekonomikoagatik.

Lan honek balio izan beza proposamen moduan gure herriaren oinarritzko argazki eguneratu bat egiteko.

*Xabier Isasi,
Gaiandegiako Lehendakaria*

Aurkezpena

Lan hau burutzeko Euskal Herriko errealitate sozio-ekonomikoa jarraitzen duten estatistika erakundeetara jo dugu: Erakunde Autonomiko (EUSTAT, Nafarroako Estatistika Erakunde), Estatu mailako Estatistika Erakunde (INE, INSEE), zein Europako Batasunaren Estatistika Erakundeetara (EUROSTAT). Oinarrizko datu horiez gain, hainbat eta hainbat erakundek argitaratutako txosten eta memoria ezberdinen kontsulta burutu dugu, datuen kontrastea zabal-tze aldera.

Honela bada, lan honek bere emaitzen sostengua datuen bateragarritasunean oinarritu nahi izan du, eta hargatik, ahal izan den guztietan EUROSTATEk bere REGIO datu-base erre-gionalean errazten dituen indizeak hobetsi ditugu. Zifra horiek, jakina, gainerako Estatistika Erakundeek elaboratutakoekin kontrastatu eta aberastu ditugu, eta datu eskuragarririk izan ez den kasuetan, berariaz egindako zenbait ikerketen ondorioetan oinarrituz, estimazioak egin ditugu.

Estimazioena eremu labainkorra izanik ere, estimazioak egin ditugunean ahalik eta onar-pen zabalena bilatu dugu. Eraikitako proposamenak, beraz, estatistika erakunde ezberdine-tako aditu, merkatal ganberetako arduradun edota unibertsitateko hainbat irakasleren babes akademikoa izan dute.

Egiturako adierazleen zerrindari dagokionez, lan honek hutsune nabarmen bat du Inguru-menari dagozkion adierazleetan, adierazle horiek oraindik orain ez baitira maila erre-gionalean elaboratzen, eta estatistika erakunde autonomikoez garatzen dituzten adierazleak ez baitira alderagarriak Europako Batasuneko gainerako herrialdeekin. Alderatzeko lanabesik lortu ezin izan dugun neurrian, lan hau aurrerago burutzeko utzi dugu.

Iparraldeko adierazleen kalkuluan espero genuen lez, zailtasun handiak izan ditugu. Datuak izan dira eragozpenik handienak eman dituztenak. INSEE zein REGIOtik, Akitania edota zenbait kasutan Pirinio Atlantiarretako datuak eskuratu ostean, aipaturiko ikerlanen hipotesiak ezarri ditugu Iparraldeko datuetara gerturatzeko, eta ondoren adituon onespena bilatu dugu. Oinarri dokumentalari dagokionez, Iparraldeko zenbait erakundek (Merkatal Ganberak, eta Garapen Kontseiluak batik bat) argitaraturiko txostenak ere oinarri hartu ditugu. Iturri horietan, ordea, bi gabezia nabarmen atzeman ditugu: genero desagregaziorik eza eta adierazle agregatuen gabezia (horien artean, Egiturako Adierazleena).

Informazio gabezia guztiak medio, Iparraldea lurralde bakar moduan hartu dugu indizeak kalkulatzekoan. Gaur gaurkoz eskura dugun informazioarekin oso ariketa zaila litzateke Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren indizeak bereizturik kalkulatzeko.

Lan taldea

Lan Batzordea:

UPV-EHUko irakasle eta doktoregaiak diren Jon Larrañaga eta Enekoitz Etxezarretak burutu dute lana.

Jarraipen batzordea:

Jarraipen batzordearen egitekoa izan da proiektuaren garapenari jarraipena egin eta urrats bakoitzaren amaieran egindakoa gainbegiratzea, azken emaitzak ahalik eta bermerik handiena izan dezan. Jarraipen batzorde hau honako hauek osatzen dute:

- Solange Mariluz, ekonomilaria eta Iparraldeko ekonomian aditua.
- Mikel Zurbano, UPV-EHUko irakaslea.
- Yolanda Jubeto, UPV-EHUko irakaslea.
- Antón Borja, UPV-EHUko irakaslea.

Informazio iturriak

Lanak Estatistika Erakundeen datuen bilketa eta alderaketa izan du oinarri. Horiek, zenbait txosten eta memorien bitartez aberastu ditugu. Lan honen egileok buruturiko estimazioak kontrastatzeko aldiz, aurrez aurreko elkarrizketak zein sakoneko bilerak egin ditugu.

Kontsultatu diren informazio iturriak:

Labur bada ere, hona hemen lan honen garapenean baliaturiko estatistika iturrien zerrenda eta kontsultaturiko argitalpen sortari buruzko informazioa:

• Estatistika-erakundeak.

Honako datu iturriak baliatu ditugu: EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine, INE, Instituto de Estadística de Navarra, INEC-Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutu Nazionala eta ISEI-Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea.

• Argitalpenak:

Kontsultaturiko argitalpen sorta jarraian zerrendatzen den dokumentuetan oinarritu da:

- "Comunicación de la Comisión COM (203)685f" (Europako Batzordea).
- "Encuesta Condiciones de Vida. 2004" (Eusko Jaurларitza).
- "Encuesta sobre Desigualdades Sociales" 2000 eta 2004 (Eusko Jaurларitza).
- "Europe in figures: EUROSTAT Yearbook 2006-2007" (Europako Batzordea).
- "EUROSTAT regional Yearbook, 2007" (Europar Batzordea).
- "Euskal Herria datuen talaiatik" 2002 (Aztiker).

- “Euskal Herria eskualdeka” 2006 (Gaindegia).
- “Indicadores de la enseñanza” (hainbat urte) (Eusko Jaurlaritzza: ISEI).
- “Libro Blanco del sistema vasco de innovación: Horizonte 2010” (Eusko Jaurlaritzza).
- “Principaux Indicateurs” saila (INSEE CONJONCTURE).
- “Regiones: Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004” (Europako Batzordea).
- “Sistema Estatal de Indicadores de la educación” (hainbat urte) (Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa: INEC).
- Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004 (Europako Batzordea: Regiones).
- Boletín Informativo del Instituto Nacional de Estadística: Encuesta de Condiciones de Vida 2004, Encuesta de Estructura Salarial 2002, Notas de prensa (INE).
- Coyuntura Económica de Navarra (egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki) (Nafarroako Gobernu).
- Diagnostic de l’environnement social et sanitaire du Pays Basque Euskal Herria 2005. (Garapen Kontseilua).
- Egiturako Adierazleak, Ogasun eta Herri administrazio Saila (Eusko Jaurlaritzza)
- España en la UE de los 25 (INE).
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordea: “Memoria socioeconómica 2005”
- Koiunturaz (Egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki) (Eusko Jaurlaritzza).
- La Economía Navarra (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki) (Nafarroako Gobernu).
- La Economía Vasca (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki) (Eusko Jaurlaritzza).
- Le Pays Basque en Chiffres-Ipar Aldeko Zenbakiak, 2007 (Baionako Merkatal Ganbera).
- Pays Basque 2020 (Garapen Kontseilua).

Adierazle zerrenda

Egindako lanak Hegoaldeko adierazleekin bateragarri diren Iparraldeko 22 adierazleren zerrenda eman digu. Zerrenda honetako adierazle asko aldagai desberdinetan desagregaturik datozela kontuan izanik, benetan adierazleak osotara gehiago dira. Adierazle bakoitzaren Iparraldeko indizea kalkulatzear gain, Hegoaldeko herrialde bakoitzaren indizea, Euskal Herri osokoa eta Europako Batasuneko estatu kideena ere ematen dugu.

Adierazleen zerrenda

Hona hemen adierazleen eta desagregazioen zerrenda:

INGURUNE EKONOMIKO OROKORRA

1. Biztanleko Barne Produktu Gordina (BPG) Erosteko Ahalmen Parekatuan (EAPn) eurotan.
2. Barne Produktu Gordina, sektore funtzionalen arabera desagregatua eurotan.
 - Lehenengo sektorea
 - Eraikuntza
 - Industria
 - Zerbitzuak
3. Errenta erabilgarria pertsona aktiboko eurotan.

4. Ekonomiaren esportazioak, inportaziok eta kanpo saldoa BPGren %tan.
Esportazioak
Inportazioak
Kanpo saldoa
5. Ekonomiaren irekiera tasa (%).
6. Eskulanaren produktibitatea landuneko Erosteke Ahalmen Parekatuan (EAPn) erreferentzia EB-25=100 izanik.

ENPLEGUA

7. Enplegu-tasa %tan (15-64 urte).
Orokorra
Gizonezkoak
Emakumezkoak
8. Langile zaharrenen enplegu-tasa orokorra %tan.
Orokorra
Gizonezkoak
Emakumezkoak
9. Euskal Herriko enplegua jarduera ekonomiko bakoitzean banatua %tan.
Lehenengo sektorea
Eraikuntza
Industria
Zerbitzuak
10. Langabezia-tasa %tan.
Orokorra
Gizonezkoak
Emakumezkoak
11. Lan istripuak pertsonako
12. Urteko batz besteko irabazi gordinak eurotan industria eta zerbitzuetan, 2004.

BERRIKUNTZA ETA IKERKUNTZA

13. Ikerketa eta Garapeneko (I+Gko) gastua BPGren %tan eta I+Gan dabilen pertsonal kopurua %tan desagregatua.

Orokorra

Enpresa

Administrazio publikoa

Goi irakaskuntza

Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak

14. Gazteen hezkuntza maila %tan.

Orokorra

Gizonezkoak

Emakumezkoak

15. Giza baliabideak zientzia eta teknologian populazio aktiboaren %tan.

16. Onartutako patenteak, Patenteen Nazioarteko Sailkapenaren (PNS) arabera milioi biztanleko.

17. Zientzia eta teknologiako graduatuak 1000 biztanleko.

EKONOMIAREN ERREFORMA

18. Kontsumorako prezioen indize armonizatuak, urteko bataz besteko aldaketa ratioetan.

19. Enpresen inbertsioa: kapital finkoaren eraketa gordina sektore pribatuan BPGren %tan.

GIZARTE KOHESIOA

20. Pobrezian murgiltzeko arrisku-tasa transferentzia sozialak egin eta gero.

Orokorra

Gizonezkoak

Emakumezkoak

21. Iraupen luzeko langabezia-tasa %tan.

Orokorra

Gizonezkoak

Emakumezkoak

22. Gizarte babesa BPGren %tan.

Bateragarritasun irizpideak

Atal honetan helburua, Euskal Herriko Oinarrizko Adierazleen kalkuluan erabilitako iturri estatistikoek, elaborazio prozeduren eta bateratze irizpideen azalpen xehetu bat aurkezta da. Jarraian bada, adierazleen atal tematiko bakoitzean adierazle bakoitzaren inguruko zehaztapen metodologikoak laburbiltzen ditugu:

Ingurune ekonomiko orokorra

1. Biztanleko Barne Produktu Gordina, Erosteko Ahamen Parekatuan (Errenta EAPn / biztanleria)

REGIOtik (EUROSTATEko datu-base erregeonaeetik) hartu dira daturik eguneratuenak (2004) EAE, NFE eta Akitaniarako. Gainera, EUROSTATEko datuok EAEtik herrialde mailako desagregaziora ere iristen dira (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren datuak eskuartu daitezke alegia). Informazio iturri komun hau erabili denez, lorturiko datuak erabat bateragarriak izango direla baieztatu dezakegu. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berriz, berariazko estimazioa burutu dugu.

Euskal Herriko zifra lortzeko, herrialdeen biztanleko errentak herrialde bakoitzeko biztanle kopuruarengatik biderkatuz, errenta datu absolutuetara jo da. Guztien batura burutuz Euskal Herriko errenta maila eskuratu da EAPn, datu hau Euskal Herriko biztanle kopuruaz zatituz biztanleko BPG EAPn erdietsi delarik.

2. Barne Produktu Gordina, sektore funtzionalen arabera desagregatua

EUROSTATEko REGIO datu-base erregionalean ez da euskal herrialdeen BPGren desagregazio funtzionalari buruzko inongo informaziorik ematen. EAeko portzentajeak EUSTATEko 2006ko urtekaritik lortu dira. NFEren datua Nafarroako Institutuak ematen du. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko berariazko estimazioa burutu da, baliaturiko datu-iturriak INSEE eta Baionako merkataritza ganbararen txostenak izan direlarik.

Euskal Herriko zifra lortzeko, REGIO EUROSTATEko datu-base erregionalean EAE (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuak bereizita), NFE eta Akitaniaren BPG nominalari buruzko errenta-datu absolutuetara jo da. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da. Behin bai Euskal Herriko zein euskal herrialde bakoitzeko BPG nominalaren datu absolutuak eskura izanik, EUSTAT-ek, Nafarroako Institutuak, INSEEk eta Baionako Merkataritza ganbarak eskainitako sektorekako portzentajeak aplikatu dira, EHko eta herrialdekako sektore desagregazioa lortu asmoz.

3. Errenta Erabilgarria pertsona aktiboko (Errenta Erabilgarria / biztanleria aktiboa)

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2004) EAE, NFE eta Akitaniarako. EAetik herrialdetara jaisteko, INEK lurraldekako desagregazioa eskaintzen du. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko prozesua, REGIO EUROSTATen datu-base erregionaleko “household accounts” adierazletik abiatu da. Bertan EAE, NFE eta Akitaniako familiek euren esku duten errenta erabilgarriaren datu absolutuak ematen dira. Iparraldeko datura gerturatzeko Akitaniako datua egokitu da berariazko hipotesiak aplikatuz. EAE, NFE eta Iparraldeko datuak batuz bada, Euskal Herriko familia guztiek urte betean duten errenta erabilgarri osoa lortzen da. Behin datuok izanik, pertsona aktiboko errenta erabilgarria izateko EUROSTATEk eskaintzen dituen biztanleria aktiboaren datuetara jo behar izan da, Iparraldeko datua eskuratzeko Akitaniako datuan berariazko hipotesiak aplikatuz. Behin honela datuon baturak Euskal Herriko biztanleria aktiboaren datu absolutua emango liguke. Azkenik, aurretik lorturiko Euskal Herriko errenta erabilgarri osoa bere biztanleria aktiboaz zatituz pertsona aktiboko errenta erabilgarria erdietsi da.

4. Ekonomiaren esportazioak, inportazioak eta kanpo saldoa Barne Produktu Gordinarekiko

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2005) EAE, NFE eta Akitaniarako. EAetik herrialdetara jaisteko, EUSTATen desagregazio-ponderazioak ezarri zaizkio REGIOren zifrarik. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, euskal herrialdeen esportazioen, inportazioen eta kanpo saldoan batura egin da, ondoren bakoitzak Euskal Herriko BPGren ehunekotan duen pisua kalkulatzu¹. Iparraldeko datua lortzeko berariazko estimazioa burutu da Akitaniako datuan oinarrituz.

5. Ekonomiaren Irekiera Tasa (Esportazioen eta Inportazioen batura, Barne Produktu Gordinaren ehunekotan)

Adierazle honetan ere, aurrekoan bezala, REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2005) EAE, NFE eta Akitaniarako. EAEtik herrialdeetara jais-teko, EUSTATen ponderazioak ezarri zaizkio REGIOren zifrari, Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu delarik.

Euskal Herriko Irekiera Tasa lortzeko, euskal herrialdeen esportazioen eta inportazioen datu absolutuen batura egin da. Iparraldeko datua lortzeko berariazko estimazioa burutu da Akitaniako datuan oinarrituz. Batura honen emaitzak Euskal Herriko BPGren ehunekotan duen pisua kalkulatu Euskal Herriko Tasa erdietsi da.

6. Eskulanaren produktibitatea landuneko, Erosteke Ahalmen Parekatutan (Barne Produktu Gordina EAPn / enpleguak, EB-25=100)

EUROSTATEk ez du datu erregionalik ematen eskulanaren produktibitateko, nahiz eta Batasuneko Herrialde Partaideen datuak ematen dituen Europako batz bestekoarekin alderatuz (EB-25=100). Hau horrela, euskal herrialdeetarako datu-iturriak bi izan dira: batetik INEren Kontabilitate Erregionaleko datuak baliatu dira EAEko eta NFEko datuak eta Espainiar Estatuko zifra lortzeko; eta bestetik, INSEEn “Comets regionaux” erabili da Akitaniako eta Frantziako Estatuko datuak eskuratzeko.

Euskal Herriko zifra lortzeko bidea bikoitza izan da: EAE eta NFEko datuak INEren bitartez jaso daitezke, hauek gainera INEren Espainiar Estatuko zifrarekin duten harremana jakin daitekeelarik. Akitaniako datua berriz INSEEn eskaintzen da, hemen ere datu honek Frantziako Estatuko datuarekin duen proportzioa ezagutu dezakegelarik. Akitaniatik Iparralderako gerturatzea burutzeko berariazko estimazioa aplikatu da, honen emaitza den datua ere Frantziako Estatuko datuarekin proportzioan lortu daitekeelarik. Behin herrialde bakoitzeko ehunekoak ezaguturik, eta Espainia edo Frantziako Estatuko datuarekin duten proportzioa kontuan izanik, EUROSTATEko Herrialde Partaideen datuak erabiliko dira euskal herrialde bakoitzeko datua hauen arabera moldatzeko, azken datuaren bateragarritasuna bermatu asmoz. Azkenik,

¹ Euskal Herriko BPG nominala eskuragarri dugu bigarren adierazlea burutzeko eginiko bateragarritasun prozedurari esker.

EUROSTATen arabera egokituriko indizeak esku artean izanda, herrialde bakoitzak dituen enplegatuaren arabera batezbesteko ponderatu bat burutzen da.

Enplegua

7. Enplegu-tasa orokorra: Landunak / 16tik gorako biztanleria.

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2005) EAE, NFE eta Akitaniarako. EAetik herrialdetara jaisteko, EUSTATen ponderazioak ezarri zaizkio REGIOren zifrari. Gauza bera egin da genero desagregazioa burutzeko ere. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, herrialdeen enplegu-tasen batz besteko ponderatua egin da, herrialde bakoitzaren tasa herrialde horrek Euskal Herri osoarekiko 16 urtetik gorako biztanlerian duen pisuagatik ponderatuz.

8. Langile zaharrenen (55-64) enplegu-tasa orokorra: (55-64 adin tarteko landunak / 16tik gorako biztanleria)

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2005), EAE, NFE eta Akitaniarako. EAetik ezin izan da herrialdetara jaitsi, EUSTATEk darabilen adin tartek ez baitu EUROSTATenarekin bat egiten. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, herrialdeen tasen batz besteko ponderatua egin da, herrialde bakoitzaren tasa herrialde horrek EH osoarekiko 55-64 adin tartean biztanlerian duen pisuagatik ponderatuz.

9. Enplegua ekonomi jarduera bakoitzean

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2005) EAE eta NFERako. EAetik herrialdetara jaisteko, EUSTATEk (2001) jarduera ekonomiko bakoitzaren herrialdekako banaketaren ponderazioak ezarri zaizkio REGIOren zifrari. Iparraldeko datuak lortzeko, ezinbestean 1999ko zentsuaren datuak erabili behar izan dira, zentsu berria 2008 urtean burutzeko asmoa dutenez gero.

Euskal Herriko balio absolutuak lortzeko herrialde bakoitzaren datuen batuketa burutu da.

10. Langabezia-tasa orokorra: (Langabeak / Biztanleria aktiboa)

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik hartu dira daturik eguneratuenak (2005), EAE, NFE eta Akitaniarako. Kasu honetan REGIOk berak EAeko datua herrialdeka desagregatua ematen du. Akitaniatik eta kasu honetan Pirineo Atlantiarretatik Iparraldera gerturatzeko, berriazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, Euskal Herriko guztizko langabe kopurua guztizko biztanleria aktiboarekin zatitu da.

Langabezia-tasen banaketa erregioen arabera

Herrialde bakoitzeko enplegu-tasak erregioen artean nola aldatzen diren erakusten digu adierazle honek (NUTSeko 2. maila). Erregioen arteko alderaketa denez, ez du zentzurik Euskal Herriaren kasuan.

EUSTATEk EAerako egiten duen gisan, eskualdeen arabera (banaketa estatistikoko 3. maila) zerbait egin liteke, baina ezin izango litzateke EUROSTATEk emandako datuekin alderatu. Gainera, Euskal Herriko herrialdeen enplegu-egituraren eta lurralde bakoitzaren ezaugarrien ondorioz, sakabanaketa oso handia da eta ez luke benetako balio estatistikorik izango.

11. Lan-istripuak: 100.000 landuneko egondako lan-istripu larriak, hiru egun baino gehiago lanera joan gabe, in itinere gertatutako istripuak kenduta

EUROSTATEk ez du maila erregionalean daturik lantzen. Lantzen dituen Estatu mailako datuak berriz, 1998=100 oinarriko indizeak dira, eta beraz aldera-ezinak Euskal Herriko datu absolutuekin.

Euskal Herriko datuak lortzeko aldiz, EAeko datuak Osalan-ek erraztu dizkigu, Nafarroa Garaiko datuak Nafarroako Gobernuaren Behatokiko Estatistika argitalpenetatik eskuratu dira, eta Iparraldeko daturik ezean, Akitaniarako datuak proposatu dira ideia bat izatearren.

12. Urteko batz besteko irabazi gordinak

Adierazle hau lantzeko, REGIOk adierazle honetan Espainia Ipar-Ekialdea eta Frantzia Hego-Mendebaldearentzat emaniko datuak ontzat jo dira. Datuak fintze aldera, INEren "Encuesta de Condiciones de Vida" ko zifrak gehitu dira, horiek beroriek alderatzen baitira EB-25 herrialdeekin.

Euskal Herriko zifra lortzeko batz besteko ponderatua egin da, herrialde bakoitzeko sol-data maila, Euskal Herriarekiko herrialde horretan bizi den biztanle portzentajearekin ponderatu da.

Urteko batz besteko irabazi gordinen genero ezberdintasuna

Adierazle hau 2002 arte plazaratu izan da. EUROSTATEk Estatu bakoitzean gizon zein emakumeen irabazi gordinak kalkulatzan zituen eros ahalmen parekatuan. Bere aldetik, INEK “Encuesta de Estructura Salarial” burutzen zuen. Iparralderako datuak lortzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko batz besteko ponderatua egin da, herrialde bakoitzeko sol-data maila, Euskal Herriarekiko herrialde horretan bizi den biztanle portzentajearekin ponderatu da.

Berrikuntza eta ikerkuntza

13. Ikerketa eta Garapeneko gastua (BPGtik) eta I+Gan dabilen pertsonal kopurua (biztanleria aktibotik), guztira eta sektoreen arabera²

EUROSTATEko REGIO datu-base erregionaletik hartu dira Ikerketa eta Garapeneko daturik eguneratuenak (2003), EAE, NFE eta Akitaniarako (bai gastua eta bai pertsonalerako). Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifrak lortzeko I+Gko gastuaren eta pertsonalaren bateratze prozesuak modu berezian burutu dira: gastuari dagokionez, I+Gko gastu osoa kalkulatu da lehenbizi. Horretarako EUROSTATEn EAE, NFE eta Akitaniarako datuak baliatu dira, Iparraldera gerturatzeko berariazko estimazio aplikatu delarik. Datu absolutuak lorturik, euskal herrialdeen datuen batura burutu da, ondoren lorturiko emaitza Euskal Herriko BPGren ehunekoetan adieraziz. Euskal Herriko BPGarekiko I+Gko gastu hau sektoreka ere desagregatu behar da. Horretarako gastu osoarekin egin bezala, sektore bakoitzeko euskal herriko gastu osoa lortu behar da, Iparraldera jaisteko aurreko estimazio berak baliatuz. Honela, sektore bakoitzeko Euskal Herriko gastu osoak BPGren ehunekotan duen pisua kalkulatu daiteke.

² Sektoreak hurrengoak dira: Enpresa sektorea, administrazio publikoa, goi irakaskuntza eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen sektorea.

Pertsonalari dagokionez, EAE, NFE eta Akitaniarako pertsona aktiboko I+Gko pertsonalaren ehunekoak EUROSTATen REGIO datu-basean izanik, datuok EAEko, NFEko eta Akitaniako biztanleria aktiboarekin biderkatuz I+Gko pertsonala guztira lortzen da. Akitaniatik Iparraldera jaisteko berariazko estimazioa burutzen da. Ondoren euskal herrialdeetako I+Gko pertsonal guztiaren batura burutzen da Euskal Herriko datu absolutua eskuratzeko. Amaitzeko datu hau Euskal Herriko BPGren ehunekotan neurtzen da. Sektorekako desagregazioari dagokionez, prozedura bera da, hots, sektore bakoitzeko I+Gko pertsonala guztira lortzeko, sektore bakoitzeko ehunekoak biztanleria aktiboaz biderkatzen da, Iparralderako berariazko estimazioak burutuz. Sektoreko guztizko pertsonalaren herrialde bakoitzeko zifra batuz Euskal Herriko guztizko pertsonalaren datua lortzen da, azken pauso batean datu hau Euskal Herriko biztanleria aktiboaren ehunekoetan adierazi behar delarik.

14. Gazteen hezkuntza maila

EUROSTATEk ez du datu erregionalik ematen gazteen hezkuntza mailarako, nahiz eta Batasuneko Herrialde partaideen datuak ematen dituen. Gainera Estatuaren datuok generoaren arabera desagregazioa dute. EUSTATEk baina EAERako hezkuntza datuak eskaintzen ditu 20 eta 24 urte bitarteko gazteentzat. Nafarroako datua INCEK (Instituto Nacional de Calidad y Evaluación del Estado Español) ematen du. Akitaniako datua EUROSTATen “news releases”-etan eskaintzen da, honi berariazko estimazioa aplikatuz Iparraldeko datua erdietsi delarik.

Euskal Herriko zifra lortzeko, EUSTATEk, INCEK eta EUROSTATEko “Newsletter”-ak EAE, Nafarroa eta Akitaniarako hurrenez hurren emandako ehunekoetan oinarrituz, portzentaje hauek 20 eta 24 urte bitarteko biztanleriaz biderkatuz euskal herrialde bakoitzeko gazteen hezkuntza mailaren zenbatekoa lortzen da. Datu hauek batuz Euskal Herrian gutxienez bigarren hezkuntza duten ikasleen zenbateko osoa lortu da. Azken pausua bada, zifra hau Euskal Herriko 20 eta 24 urte bitarteko biztanleria osoaren ehunekoetara pasatzea da. Bateraketa prozedura bera aplikatu beharko litzateke Euskal Herriko emakumezkoen eta gizonezkoen datu desagregatuak lortu ahal izateko.

15. Giza baliabideak Zientzian eta Teknologian (GBZT)

EUROSTATEko REGIO datu-base erregionaletik hartu dira zientzia eta teknologiko giza baliabideei buruzko daturik eguneratuena (2006). Bertan EAE, NFE eta Akitaniako zifrak azaltzen dira herrialde bakoitzeko biztanleria aktiboaren ehunekoetan. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

EUROSTATen Regio datu-baseko EAE, NFE eta Akitaniako ehunekoetatik abiatuz, zifra hauek biztanleria aktiboaz biderkatzen dira herrialdekako guztizko datuak eskuratzeko. Akitaniatik Iparraldera igarotzeko berariazko estimazioa burutu da. Datu absolutuen baturak Euskal Herriko GBZT adierazten du. Bukatzeko, guztizko GBZT hau Euskal Herriko biztanleria aktiboaren ehunekoetan adierazten da.

16. Patenteak, Patenteen Nazioarteko Sailkapenaren (PNS) arabera

EUROSTATEko REGIO datu-base erregionalean Europako Patenteen Bulegoak (EPB) EAE, NFE eta Akitaniako patenteen aplikazioen daturik eguneratuenak eskaintzen ditu (2003), Patenteen Nazioarteko Sailkapenaren (PNS) arabera hartu dira zientzia eta teknologiako giza baliabideei buruzko daturik eguneratuenak (2006). Bertan EAE, NFE eta Akitaniako zifrak azaltzen dira herrialde bakoitzeko biztanleria aktiboaren ehunekoetan. Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

REGIOko milioi biztanleko EAE, NFE eta Akitaniaren indizeak herrialde bakoitzeko biztanleengatik biderkatuz Patente kopuru absolutuan lortzen dira. Akitaniako datutik Iparraldeko datura iristeko berariazko estimazioa aplikatu da. Datu absolutu hauen baturak Euskal Herriko Patenteen balio absolutuak ematen dizkigu, hau Euskal Herri osoko biztanleekiko adieraziz adierazle bateratua eskuratzeko delarik.

17. Zientzia eta teknologiako graduatuak

Adierazle honetarako ez da posible izan REGIOtik inolako datu erregionalik eskuratzetik, EUROSTATEk Estatuentzako baino ez baitu kalkulatzeko adierazle hau. EAerako 2003ko datua, EUSTATEk argitaraturiko prentsa oharren bitartez eskuratu da. NFE eta Iparraldeko datuak Gaindegiak argitaraturiko "Egitura adierazleak, Bizkaiaren egoera EHren eta EBren aldean" txostenetik lortu dira.

EUSTATEk EAen 20 eta 29 urte arteko populazioaren artetik zientzia eta teknologiako graduatuak diren adin bereko biztanleen portzentajea eskaintzen du. Gaindegiak ere mila biztanleko graduatuen zenbatekoa ematen du bai Nafarroa eta bai Iparralderako. Datu Talaiako biztanleria datuak baliatuz (adin tarteetara egokitutik eskaintzen direnak) herrialde bakoitzeko milako hauek datu absolutuetara moldatu dira. Guztizko datuon baturak Euskal Herriko zientzia eta teknologiko zifra du emaitzatzat, guztizko hau Euskal Herriko biztanleriaren milakotan adieraziz Euskal Herriko adierazle bateratua lortzen delarik.

Ekonomiaren erreforma

18. Kontsumorako Prezioen Indize Armonizatuak, urteko bataz besteko aldakuntza ratioetan

Adierazle hau EUROSTATen REGIO datu-basean eskaintzen da Batasuneko Herrialde Partaideen kasuan, baina ez du maila erregionaleko desagregaziorik eskaintzen. Ondorioz, Kontsumorako Prezioen Indize erregionalak lortzeko INE (EAE eta NFERako) eta INSEera jo behar izan da. Honela, Iparralderako zifra burutzean, berariazko estimazioak burutu ostean Frantziako datu bera erabiltzea hobetsi da.

Ezinezko izan da Euskal Herriko zifra bateratu bat eskuratzea Kontsumorako Prezioen Indizearen kalkuluak herrialde ezberdinetan duen heterogenotasuna dela eta. KPIaren kalkulua burutzeko prozedura alderaezintzat jo da beraz. Honen aurrean Euskal Herriko prezio mailaren irudi zatikatu baina gutxienez oso bat eskaintzeko hautua egin da, hiru KPI desberdinetan banatuz Euskal Herriko zifra: EAEkoa, NFEkoa eta Iparraldekoa alegia. Horretarako INEren eta INSEEren datu-basera jo da, berariazko estimazioak burutu ostean Iparraldeko prezioen maila Frantziako Estatuko prezioekin parekatzea erabaki delarik.

19. Enpresen Inbertsioa. Kapital Finkoaren Eraketa Gordina sektore pribatuan

EUROSTATEko REGIO datu-base erregionaletik hartu dira Enpresen Inbertsioari buruzko datuak eguneratuenak (2004), EAE, NFE eta Akitaniarako (bai gastua eta bai pertsonalerako). Akitaniatik Iparraldera gerturatzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko Kapital Finkoaren Eraketa Gordinari buruz BPGren ehunekotan dauden zifrak datu absolutuetara eraldatu dira, herrialde bakoitzeko BPG datuak kontuan izanda. Iparraldeko datua erdiesteko berariazko estimazioa burutu da. Herrialde bakoitzeko datu absolutuen batura eginez Euskal Herriko KFEG guztira lortu da. Azken pausu batean zifra honen Euskal Herriko BPGren ehunekotan duen pisu portzentuala zein den neurtu da.

Gizarte kohesioa

20. Pobrezian murgiltzeko arrisku-tasa, transferentzia sozialak egin eta gero: Pobrezia-atalasearen azpitik dauden diru-sarrera baliokideak dituzten pertsonen proportzioa, hots, errenta nazional erabilgarri baliokidearen erdiko balioaren %60.

Adierazle honetarako ez da posible izan REGIOTik inolako datu erregionalik eskuratzetik, EUROSTATEk Estatuentzako baino ez baitu kalkulatzeko adierazle hori. EAerako 2004ko datua, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Sailak landuriko egiturako adierazlearen argitalpenetik eskuratu da. NFERako datua aldiz, INERen 2004ko "Encuesta de Condiciones de Vida" inkestatik lortu da. Iparralderako zifra berriz, berariazko estimazioak burutu ostean, Frantziako Estatuko datu bera erabiltzea hobetsi da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, herrialde bakoitzean pobrezia-atalasearen azpitik bizi diren pertsona guztien batuketa egin da, 16 urtetik gorako biztanleria osoarekin zatituz.

21. Iraupen luzeko langabezia-tasa: Iraupen luzeko langabeen ehunekoa (12 hilabete baino gehiago) 15-64 urte bitarteko biztanleria landun osotik.

REGIO EUROSTATEko datu-base erregionaletik langabeen artean iraupen luzekoak zein portzentaia diren lortu da. Ondoren portzentaje hori ezarri zaie REGIOk berak emandako langabezia-tasei. Ezin izan da generoaren araberrako portzentaje bereizturik lortu. Akitaniatik Iparraldera gerturatuzeko, berariazko estimazioa burutu da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, Euskal Herriko guztizko iraupen luzeko langabe kopurua guztizko biztanleria aktiboarekin zatitu da.

22. Gizarte babesean eginiko guztizko gastua (BPGren %).

EUROSTATEk ez du maila erregionalean daturik lantzen. Hortaz, EAerako datua EUSTATEk 2004rako emanikoa hartu da. NFERako, Gaindegiak eginiko aurretiazko estimazioak berretsi dira. Iparraldeari dagokionez, berariazko estimazioen ondorioz, Frantziako Estatuko datu bera ezartzea onetsi da.

Euskal Herriko zifra lortzeko, herrialde guztien portzentajeen batz besteko ponderatua egin da. Horretarako, herrialde bakoitzaren gastua, herrialde horrek Euskal Herriko guztizko BPGan duen pisuagatik ponderatu da.

Adierazle bakoitzaren definizioak

Ingurune ekonomiko orokorra

1. Biztanleko Barne Produktu Gordina, Erosteko Ahalmen Parekatuan: errenta EAPn / biztanleria

Errentaren tamaina osoa populazioaren aldean, erosteko ahalmenaren arabera ponderatua.

Definizioa: Alderaketa espazialak egiteko neurria da hau. Produktu nominal berak erosteko ahalmen desberdinak izan ditzake bi herritan, prezioen arteko aldearen eraginez. Horregatik, herri bakoitzeko dirua (EAP) fikziozko diru batera (EAS: erosteko ahalmen estandarra) aldatzen da, herrien arteko alderaketak egin ahal izateko. Normalean, herrialde bateko prezioak hartzen dira eraldaketa egiteko oinarritzat, baina Europako kasuan, EAP bat = euro bat eskala hartzen da erreferentziatzat.

2. Barne Produktu Gordina, sektore funtzionalen arabera desagregatua eurotan:

Errentaren tamaina osoa, herrialdearen sektore funtzional ezberdinetan desagregatuta: lehenengo sektorea, eraikuntza, industria eta zerbitzuak.

Definizioa: Aztertutako aldian produkzio-prozesuan sortu den balioa adierazten du, balio hau ekonomiaren adar ezberdinetan desagregatuz. Balio erantsi gordinak merkatuko prezioetan duen balioa sektore ezberdinetan desagregaturik neurtzeko, ekonomiaren sektore ezberdinen balio erantsi gordinek fabrika-irteerako prezioetan duten balioari, produktuak zergapetzen dituen BEZa eta inportazioari lotutako zergak erantsi behar zaizkio.

3. Errenta erabilgarria pertsona aktiboko eurotan:

Definizioa: Pertsona aktiboko errenta erabilgarri gordinak pertsona aktibo bakoitzaren eskuetan geratzen den errenta adierazten du, behin dagozkion zerga zuzenak eta gizarte segurantzaren derrigorrezko kuotak ordaindu ondoren eta Estatutik zein orohar erakunde publikoetatik jasotzen diren transferentziak kontabilizatu ondoren.

4. Ekonomiaren esportazioak, inportaziok eta kanpo saldoa BPGren %tan

Herrialde batek buruturiko esportazioen eta inportazioen balioa eta bien arteko saldoa adierazten ditu, herrialde bakoitzaren Barne Produktu Gordinaren ehunekotan.

Definizioa: Adierazle honek urte batean herrialde batek eginiko esportazioen eta inportazioen balioa zein den azaltzen du, herrialde bakoitzeko urte horretako Barne Produktu Gordinaren (BPG) ehunetan adierazita. Honez gain aurkezten den kontu korrontearen saldoak edo kanpo saldoak, herrialde bakoitzak munduko beste herrialdeetara bideraturiko ondasun eta zerbitzuen esportazioen balioaren eta munduko beste herrialdeetatik jasotako ondasun eta zerbitzuen inportazioen balioaren arteko aldea zein den erakusten du, herrialdearen BPGren ehunekotan.

5. Ekonomiaren irekiera tasa (%):

Tasa honek herrialde batek buruturiko esportazioen eta inportazioen baturaren balioa, herrialde bakoitzaren Barne Produktu Gordinaren ehunekotan erakusten du.

Definizioa: Adierazle honek herrialde baten esportazioen eta inportazioen baturaren muga adierazten du bere Barne Produktu Gordinaren ehunekotan. Herrialde batek nazioarteko merkataritzarekiko erakusten duen irekiera tasa herrialdearen produktibitate hazkunderako iturrietariko bat izan liteke kanal baten edo gehiagoren bitartez (beste ekonomia batzuen jakintzen xurgapenari esker, merkatu efektiboaren tamainaren hazkunderaren bitartez eskala ekonomiak baliatzeko aukera izatea, etab.).

6. Eskulanaren produktibitatea landuneko, Erosteko Ahalmen Parekatuan (EAPn) erreferentzia EB-25=100 izanik:

Herrialde bakoitzeko BPGa landuneko erosteko ahalmenaren arabera ponderatua.

Definizioa: Lurralde baten ekoizpena neurtzen du adierazle honek, erosteko almena parekatuta, landun kopuruarekin zatikatuta eta Europako Batasunerako 100 balioa hartzen duen indizearekin erlazionatuta.

Enplegua

7. Enplegu-tasa %tan (15-64 urte):

15-64 urte bitarteko landunen proportzioa adin-tarte bereko biztanle guztien aldean

Definizioa: Biztanleriak enpleguan duen parte-hartzea erakusten digu adierazle honek. 15-64 urte bitarteko biztanleak hartzen ditu kontuan adierazle honek, baina Espainiako Estatuan lan-munduratzeko gutxieneko adina legez 16 urtekoa izanik, EAEko eta Nafarroako egitura-adierazleetan eman beharreko datuak 16-64 urte bitartekoak izango dira.

8. Langile zaharrenen enplegu-tasa orokorra %tan:

55-64 urte bitarteko landunen proportzioa, adin-tarte bereko biztanle guztien aldean.

Definizioa: Lan-merkatua behar baino lehenago utzi lezaketen landun zaharrenek enpleguan duten benetako parte-hartzea ezagutu nahi da adierazle honen bidez.

9. Euskal Herriko enplegua jarduera ekonomiko bakoitzean banatua %tan:

Definizioa: Adierazle honen bitartez, biztanleria landunaren banaketa aztertzen da, jarduera ekonomiko bakoitzaren arabera.

10. Langabezia-tasa %tan:

Definizioa: 15 urtetik gorako pertsona langabeen kopurua, adin tarte bereko biztanleria aktiboaren gain.

11. Lan istripuak pertsonako:

Definizioa: 100.000 landuneko egondako lan-istripu larriak. Lan-istripu larrien eragin-tasak 100.000 landuneko lanera hiru egun baino gehiago huts egitea eragiten duten istripuak neurtzen ditu.

12. Urteko bataz besteko irabazi gordinak industria eta zerbitzuetan, 2004

Definizioa: 10 landunetik gorako enpresetan arduraldi osoz lanean diharduten industria eta zerbitzuetako langileek, bataz beste urtean jasotzen duten irabazi gordina, eurotan.

Berrikuntza eta ikerkuntza

13. Ikerketa eta garapeneko (I+G-ko) gastua BPGren %tan eta I + Gan dabilen pertsonal kopurua %tan desagregatua:

Definizioa: Adierazle honetan Barne Produktu Gordinetik ikerketan eta garapenean egindako gastuaren portzentaje eta landunen artean ikerketan eta garapenean diharduen pertsonala jasotzen dira. Gainera datu hauek bai osotara eta bai sektoreen arabera desagregaturik (Enpresak, administrazio publikoa eta goi-mailako irakaskuntza) eskaintzen dira.

14. Gazteen hezkuntza maila %tan:

Definizioa: 20-24 urte bitarteko gazteen populazio osoaren artetik, gutxienez bigarren hezkuntza gainditu duten adin bereko gazteen ehunekoa adierazten du.

15. Giza baliabideak zientzia eta teknologian populazio aktiboaren %tan:

Giza baliabideetako gastua, biztanleria aktiboaren ehunekotan.

Definizioa: Bi ataletako gastuak sartzen dira hemen: hezkuntzakoak (hezkuntza erakundeetan, hezkuntzan diharduten erakunde pribatuei emandako dirulaguntza publikoak eta familiei ematen zaizkien diru-laguntza publikoak, hala nola ikasleei matrikulak ordaintzeko eta bizi-kostuei aurre egiteko bekak eta maileguak...) eta hezkuntza lektiboan ematen diren zerbitzu osagarriak (jangela, garraioa, psikologo, logopeda eta abarren gastuak...).

16. Onartutako patenteak, Patenteen Nazioarteko Sailkapenaren (PNS) arabera milioi biztanleko:

Definizioa: Adierazle hau osatzeko EPOk emandako informazioa erabiltzen da, Europako Patenteen Bulegoan (EPB) erregistraturiko patenteak milioi biztanleko adieraziz, Patenteen Nazioarteko Sailkapenari (PNS) jarraiki. Asmatzailearen bizitokiaren arabera antolatzen dira, zenbaketa-zatiki bat erabiliz asmatzaile bat baino gehiago baldin badaude edo PNSko mota batean baino gehiagotan sailkatzea badago, zenbaketa bikoitza saihesteko. Adierazle honetan jasotako patenteak Europako Patenteen Bulegoan aurkeztutakoak zenbatzen dira bakarrik, eta ez AEB-etako Merkataritzako Marken eta Patenteen Bulegoan (USPTO) edo Japoniako Patenteen Bulegoan aurkeztutakoak.

17. Zientzia eta teknologiako graduatuak 1000 biztanleko:

Mila biztanleko zientzia eta teknologiako goi mailako graduatuak, 20-29 urte bitarteko biztanle guztietatik.

Definizioa: Zientzia eta teknologiako goi-mailako ikasketetan graduatutakoei buruzko adierazle goi-mailako irakaskuntzako erakunde publiko nahiz pribatuetan ikasitakoak sartzetik dira³.

Ekonomiaren erreforma

18. Kontsumorako prezioen indize armonizatuak, urteko batz besteko aldaketa ratioetan:

Definizioa: Kontsumorako Prezioen Indizeak inflazioan izandako aldaketak neurtzeko gehien erabiltzen diren tresna dira. Egitura-adierazle bezala indize bateratuak erabiltzen dira (indize armonizatuak bezala ere ezagutuak), hauek Batasuneko herrialde bakoitzeko Kontsumorako Prezioen Indizeen ezaugarri metodologiko esanguratsuenak bateratzearen emaitza direlarik. Honi esker indize hauek Herrialde Partaideen arteko alderaketa homogeneoak egiteko aukera ematen dute.

19. Enpresen inbertsioa: kapital finakoaren eraketa gordina sektore pribatuan BPGren %tan:

Herrialde bakoitzeko sektore pribatuak burutzen duen KFEGa, BPGren ehunekotan.

³ EUROSTATek 1999an argitaratutako "The Fields of Education and Training Manual" esku-liburuan hezkuntzari eta irakaskuntzari buruzko alorrekin bat dator sailkapen hau. ISCEDen zuzenketarekin (ISCED 97) hartu ditugu alor horiek.

Definizioa: Herrialde bateko Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak (KFEG) ekoizle egoiliarrek aldi jakin batean egindako aktibo finkoen eskuraketak, ken denbora berean ezabaturiko aktibo higiezinak, gehi jarduera produktibotik eratorririko produzitu gabeko (normalean naturalak diren) higiezinaren balio-jabetzeak barneratzen ditu. Adierazle hau herrialde bakoitzeko BPGren ehuneko bezala aurkezteak, sektore pribatuak BPG osotik inbertsiora zuzentzen duen portzentajea adierazten du (barne-kontsumora edo esportazioetara bideraturikoa erakutsi ordez).

Gizarte kohesioa

20. Pobrezian murgiltzeko arrisku-tasa transferentzia sozialak egin eta gero.

Definizioa: Pobrezia-atalasearen azpitik dauden diru-sarrera baliokideak dituzten pertsonen proportzioa, hots, errenta nazional erabilgarri baliokidearen erdiko balioaren %60. Adierazle honetan, transferentzia sozialak jaso eta gero egiten dira neurketak.

21. Iraupen luzeko langabezia-tasa %tan.

Definizioa: Iraupen luzeko (12 hilabete baino gehiago) langabe kopurua, biztanleria aktibo osoaren gain.

22. Gizarte babesa BPGren %tan:

Definizioa: Gizarte babesean eginiko gastu osoa, BPGren ehunekotan.

Bibliografia atal tematiko bakoitzerako

1. Biztanleria

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, Instituto de Estadística de Navarra

Argitalpenak: "Euskal Herria datuen talaiatik" (Aztiker) 2002

2. Barne-produktu gordina eta produktibitatea

- Estatistika-erakundeak: EUROSTAT, EUSTAT, INE, INSEE-Aquitaine, Datu Talaia

Argitalpenak:

- Europar Batzordea: Regiones: Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004
- Nafarroako Gobernua:
 - La Economía Navarra (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - Coyuntura Económica de Navarra (egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)

- Eusko Jaurlaritza:
 - La Economía Vasca (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - Koiunturaz (egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)
- INSEE CONJONCTURE: "Principaux Indicateurs" saila
- Baionako Merkataritza Ganbara: "Le Pays Basque en Chiffres. Ipar Aldeko Zenbakiak" (2007)

3. I+G eta enpresen inbertsioa

• Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine, INEC-Espainiako Kalitate eta Ebalazio Institutu Nazionala, Datu Talaia.

Argitalpenak:

- Europako Batzordea: "Regiones: Anuario estadístico 2006: Datos 2000-2004"
- Eusko Jaurlaritza: "Libro Blanco del sistema vasco de innovación: Horizonte 2010"
- INEC: "Sistema Estatal de Indicadores de la educación" (hainbat urte)
- Baionako Merkataritza Ganbara: "Economie du Pays Basque. Ipar Euskal Herriko Ekonomikoa" (2007)
- Gaindegia: "Egitura adierazleak, Bizkaiaren egoera EHren eta EBren aldean" (2007)

4. Lan-merkatua

• Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine

Argitalpenak:

- Gaindegia: "Euskal Herria eskualdeka" 2006
- Europar Batzordea:
 - "EUROSTAT regional Yearbook, 2007"
 - "Europe in figures: EUROSTAT Yearbook 2006-2007"

- Nafarroako Gobernua:
 - La Economía Navarra (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
- Eusko Jaurlaritzaz:
 - La Economía Vasca (urtean behingo txostena, hainbat zenbaki)
 - Koiunturaz (Egoerari buruzko hiru hilean behingo aldizkariak, hainbat zenbaki)
 - Egiturazko Adierazleak, Ogasun eta Herri administrazio Saila.
- INE:
 - Boletín Informativo del Instituto Nacional de Estadística: Encuesta de Condiciones de Vida 2004, Encuesta de Estructura Salarial 2002, Notas de prensa.
 - España en la UE de los 25.
- Baionako Merkatal Ganbera:
 - Le Pays Basque en Chiffres-Ipar Aldeko Zenbakiak, 2007.
- Garapen Kontseilua:
 - Pays Basque 2020
 - Diagnostic de l'environnement social et sanitaire du Pays Basque Euskal Herria 2005.

5. Gizarte-kohesioa

- Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE-Aquitaine

Argitalpenak:

- Europako Batzordea:
 - "EUROSTAT regional Yearbook, 2007"
 - "Europe in figures: EUROSTAT Yearbook 2006-2007"
- Eusko Jaurlaritzaz:
 - "Encuesta sobre Desigualdades Sociales". 2000 eta 2004
 - "Encuesta Condiciones de Vida. 2004"
- INE:
 - Boletín Informativo del Instituto Nacional de Estadística: Encuesta de Condiciones de Vida 2004, Encuesta de Estructura Salarial 2002, Notas de prensa.
 - España en la UE de los 25.

- Baionako Merkatal Ganbera:
 - Le Pays Basque en Chiffres-Ipar Aldeko Zenbakiak, 2007.
- Garapen Kontseilua:
 - Pays Basque 2020
 - Diagnostic de l'environnement social et sanitaire du Pays Basque Euskal Herria 2005.

6. Hezkuntza

• Estatistika-erakundeak: INE, EUSTAT, EUROSTAT, INSEE—Aquitaine, INEC-Espainiako Kalitate eta Ebaluazio Institutu Nazionala, ISEI-Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak, Datu Talaia.

Argitalpenak:

- Europar Batzordea:
 - "Régions: Annuaire statistique 2006 Données 2000-2004"
 - "Comunicación de la Comisión COM (203)685f"
- Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa: INEC: "Sistema Estatal de Indicadores de la educación" (hainbat urte)
- Eusko Jaurlaritza: ISEI: "Indicadores de la enseñanza" (hainbat urte)
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordea: "Memoria socioeconómica 2005".
- Gaindegia: "Egitura adierazleak, Bizkaiaren egoera EHren eta EBaren aldean" (2007).

Euskal Herriko adierazle ekonomiko eta sozial nagusiak neurtzen



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Martin Ugalde Kultur Parkea · 20140 Andoain · www.gaiandegia.org · Tel. +34 943 304 365

Babesleak:

